

LAIKA JABE BILA

Egunak joan eta egunak etorri ziren baina Laikak jaberik gabe jarraitzen zuen. Bere urtebetetze eguna gerturatzen ari zen, baina momentu hartan pertsona ezezagun eta misteriotsu baten informazioa irakurtzen hasi zen eta antzeko guztuak zeuzkan.

- **Bera egokia da gainera norbaiten jabea izateko desiatzen dago!!!-esan zuen Laikak pozez zoratzen.**

Hurrengo egunean Laika oso goiz altxatu zen motxila prestatu eta jabe bila joateko.

- **Janaria, manta bat hotzik ez pasatzeko, nire ostadar kuxin kuttuna, hortzetako eskuila, orrazia eta nire koaderno hartuko dut egindakoak apuntatzeko, eta familiakoei erakusteko -esan zuen Laikak motxila beteta zuela. Baina momentu hartan ama esnatu eta Laikari esan zion.**
- **Baina Laika zertan zabiltza horren goiz motxila prestatzen. Nora zoaz?- galdetu zion amak kezkatuta.**
- **Jabe bat aurkitu dut eta bere bila noa basora-esan zion Laikak aingerutxo aurpegiarekin.**
- **Baaaa, ez dakit utziko dizudan, oraindik txikia zara basora bakarrik joateko.-esan zion amak.**
- **Baina ama laster zortzi urte beteko ditut eta ordurako jaberik aurkitzen ez badut hemendik joan beharko naiz!!!-esan zuen Laikak negar zotinka.**
- **Ados, baina kontuz ibili mesedez, ez dakizu nor den eta pertsona arriskutsua izan daiteke.**
- **Bai ama, bueno, banoa ados! Baina egon lasai, ostegunean nire urtebetetze eguna denez hemen egongo naiz zuekin ospatzeko, ados???-esan zuen Laikak urduri baino urduriago.**
- **Ados, bueno ongi ibili eta kontuz!!!-esan zion amak zer gertatuko zitzaion pentsatzen.**
- **Bai, aguuuuurrrrr!!!!-erantzun zion Laikak eskuarekin agur eginez. Eta Laika bere bidaiarkin hasi zen.**

Bidaia oso luzea izan zen baina azkenean Laika iritsi zen basora. Hankak lokaztuta zituen horrenbeste ibiltzeaz. Baina momentu batean etxola txiki bat ikusi zuen urrunean eta ikustera gerturatu zen. Atea jo zuen eta bapatean norbaitek atea ireki zuen.

- **Nor da? Ez daukat denborarik jolasean ibiltzeko!!!-esan zuen etxola hartan bizi zen pertsona misteriotsu harek.**
- **La, Laika, ka na, iz- esan zuen Laikak oso baxu eta zeharo beldurtuta- ni, nire jabea izan na, nahiko a, ahal zenuke???-galdetu zion Laikak.**
- **Benetan ni zure jabea izatea nahi duzula!!! Bai noski nahi**

dudala!!!- esan zuen neskak harrituta. Eta kanpora irten zen neska.

Laikari esan zion bera Mali deitzen zela eta inoiz inork ez ziola eskatu bere jabea izatea. Duela zortzi urte etorri zela ere esan zion, eta Laika harritu egin zen galdetuz eha zortzi urtetan inork ez zion eskatu bere jabea izatea. Malik esan zion zortzi urtetan ez zela etxetik irten, izan ere, beldurra zuen norbaitek zerbait esatea. Laikak esan zion ez larritzeko eta bera beti egongo zela bere ondoan zerbait pasatuz gero, Eta Mali asko poztu zen.

- Eskerrik asko Laika asko lagundu didazu, baina orain zer egingo dugu?-galdetu zuen Malik ilusionatuta.**
- Bueno bihar nire urtebetetze eguna da eta zurekin eta nire familiarekin ospatzea nahi dut. Nahi baduzu etorri zaitezke nire etxera nire urtebetetze eguna ospatzeko!!!- eskeini zion Laikak pozez zoratzen.**
- Ados!!!-esan zuen Malik Laikaren familia ezagutzeko asmoz.**

Biak batera Laikaren etxera joan ziren eta urteak pasa ahala Malik Laika entrenatzen zuen lasterketak irabazi ahal izateko. Eta horrenbeste entrenatu ostean azkenean Laika bertako adarbakarrik azkarrena eta indartsuena bihurtu zen !!!!

**ETA HALA BAZAN EDO EZ BAZAN ZAR DADILA KALABAZAN ETA
ATERA DADILA BERGARAKO PLAZAN !!!**

Ezizena